

## IRITZIA

Maider Elustondo

## GEHIGARRIA

Etxe-apanketari  
buruzko gehigarri  
berezia

## BERBETAN

Silvia Hernkidez,  
Itxaropena  
abesbatzako  
zuzendaria

## KIROLA

Kike Ormaetxeak,  
Haundiren  
entrenatzaileak,  
Eibarko taldea  
entrenatuko du


## KULTURA

Gerrak sortzen  
dituen ondorioak  
erakusketa batean  
ikusgai

# BARREN

1998ko apirilaren 24a  
VI. urtea 233. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



## Elgoibarko VII. Duatloia Saltaka eta bizikletan

10"

"Zaiitasuna zenbat eta handiopia izan, orduan eta handiagoa da poza" Anonimoa

maia 17nr1 3

im  
Li


maren eduna




Aranburu bitxidenda  
amaren domina



Astigarraga loradenda  
lorak



Bazar desde 100  
iostun kutxa eta mahaiko set-a



Ecenarro mertzeria  
etxeke bata



Ikus optika  
eguzkitako betaurrekoak



Iriondo kirolak  
kirol moda



Maidagan jantzidenda  
udako moda



lapizlazuli eta  
brilantezko lepokoak



Mimox loradenda  
loradun apaingarria



Muruamendiaraz **gozodenda**  
bonboi kaxa



Uzuri optika  
eguzkitako betaurrekoak



Muxi kirolak  
aerobic-eko erropa



MAIDER ELUSTONDO

## Etxebizitza duina denon eskubidea

**E**txebizitza lortzea arazo sozial bihurtu da. Ez dago esan beharrik etxea erosi edo alokatzea zein den garestia. Are gehiago, langabezia, lan munduko prekarietatea eta orain arte hain altu egon diren interes tipoa kontuan edukiz gero.

Bizimodu eredu bilakatu da bizi guztia etxea ordaintzeko soilik lanean pasa beharra, kreditu baten esklabu. Familia kideekin pilatuta bizitzera behartuta ikusten dute askok bere burua. Gaur egun oso gutxi dira pribilegiatuak kontsidera ditzakegunak.

Babes ofizialeko etxeak lortzeko aukerak oso urriak dira, etxe beharra duten %65a langabezian, behin-behineko lanean edo gutxienezko diru-sarrerarik gabe baitago. Beraz, etxebizitzaren problematikak gizarte sektore oso zabalari eragiten dio.

Hego Euskal Herrian, 127.823 etxebizitza dau-de hutsik. Hau da, gaur egun etxebizitza beharrean daudenen eskariari aurre egiteko lain ematen du. Elgoibarren 4.200 etxebizitza inguru daude, hauetatik 705 hutsik; hau da, gure herriko etxebizitzaren %16a. Halere, udaleko agintariek ia beste 700 etxe egiteko proiektua daukate. San Roken egin berri dituzten 20 etxebizitzetzi beste 200 gehitu nahi dizkiete. Urruzuno inguruan 250 etxe inguru egiteko asmoa dago, Elgoibarko gaur egungo itxura aldatuko

duten beste 239 etxebizitzaz gain. Madala inguruan egin behar dituzten luxuzko etxebizitzetzi buruz ari naiz, noski.

Beraz, proiektu hauek bukatzen dituztenean 5.000 etxebizitza inguru egongo dira Elgoibarren.

Orografikoki irregularra eta lurzoru kopuru txikiko herria dugunez, beharrezkoa denean bakarrik eraiki beharko lirateke etxeak. Baina orduan ere, udalek lurzoru politika egokia egin beharko lukete, hiritar guztiek etxebizitza duin batez gozatzeko duten eskubidea bermatzeko asmoz: lurzoru publikoa handitu eta partehartze zuzena bul-tzatu.

Populazioak hehera, etxebizitza kopuruak gora, eta gazteak gurasoen etxetik geroz eta nekezago alde egiten. Etxe berri hauek guztiak nori zuzenduak dauden galdetzen diot nire buruari.

Etxebizitza duina mundu guztiak duen oinarriko eskubidea da. Hutsik dauden etxeek erabilpen soziala izan beharko lukete. Espekulazioari mugak jarri behar zaizkio, alokairuko etxebizitza publikoak eskaini eta beharra duen guztiak babes publiko edo sozialeko etxebizitza eskuratzeko aukera izan behar du.

Bitartean, datu hauek guztiak mahai gainean ditudala, etxebizitza hutsen okupazioa datorkit burura.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kalaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

**"Espekulazioari mugak jarri behar nizkio, alokairuko etxebizitza publikoak eskaini eta beharra duen guztiak babes publiko edo sozialeko etxebizitza eskuratzeko aukera izan behar du".**

## Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR


\*TT 74 41 12

Publizitatea:  
74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko I zarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZuzENDARIA	Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Comejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Mattiñ
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste,
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegia, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maidel Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Ainzane Garate, Jon Garale, Juanito Gorosliza, Amaitz Gorrifi, Alberto Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar, Miren Vallejo.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlearitzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



tt' fundazioa  
fundación

tt' DANOBAT  
MAQUINAS HERRAMIENTA

Av0011711  
GRUPO DANOBAT

## Artea errespetatzen ikasi

**F**lgoibartarra izanik, Arte Ederretako ikasle bezala idazten dut, Esperanza D'Ors artista madrildarrak egindako Icaro eskultura jarri dutela eta, hainbat aipamen egiteko.

Alde batetik, pozten naiz Elgoibarko herria arteaz arduratzeaz. Hor daude Kultur Etxean egiten diren hainbat erakusketa, azkenengo urteetan herrian jartzen ari diren arte-lanak eta beste hainbat ekintza. Baina hainbat jende arte-lanaren aurrean duen erreakzioa salatu nahi nuke:

Dagoeneko autopistako errotondan dagoen eskultura pintadaz josia dago eta Elgoibartik jaso ditudan azken berriek diotenez, jarri berri den Icaro eskultura ere gaizki tratatzen hasia da. Hauei eskatuko nieke artea errespetatzen saiatzea.

Ongi deritzot bakoitzak arte-lanaren aurrean iritzi propioa izatea. Icaro eskulturaz ari garenez, batzuek polita dela diote, beste batzuek zatarrak, beste batzuek ez dela tokirako aproposa, etab. Baina, beti ere, aurretik, artea ulertzen saiatu behar da, eta batez ere, errespetatzen.

Arte-lanak zaindu egin behar ditugu, herriaren parte ere osatzen baitute. Arte-lanez beterik dagoen hiri batetik ari natzaizue eta harekiko errespetua ikaragarria da. Parisek artearekin egin duen ibilbidea luzea da eta beharbada, ezin daiteke konbaratu Elgoibarkoarekin, baina daukagun arte apurra zaintzen saiatu behar gara.

Alazne Gonzillez

## Utikan Udalaren kolaborazioa: Intsumisioa!

**I**ntsumitu izatea eta empresioa pairatzea esku beretik datozela jakin arren, asko gara oraindik askatasunaren lomenarako bidean desobedientziaren bidea aukeratzen dugun gazteak.

Bizkarra ematen diegu beraien nagusien interes politikoak bakarrik de-

fendatzen dituztenen aginduei: ama lurra desegin eta armatmentuaren negozioa aberastu eta gehitzeko besterik balio ez duen gerrate injustuek nazka ematen digute. Negozio hau da Garate alkateak eta bera bezalakoek bultzatzen dutena, kargu publikoak izanik ejerzitotari beharrezkoa zaion informazioa eskaintzen baitiote erreklutamendurako adina duten gazteen datuak emanez.

Argi dago bost axola zaiela honek ekartzen dituen kalteak, informazio horrek gazteak gartzelaratzeko balio baitu.

David Ferna'ndez

## BARRENen non dago gazteon intimitatea?

**A**stekari honek argazki negargarri hura atera zuenetik aste batzuk igaro direnean, herriko atso zaharrek nire izena (beste behin ere) bolo-bolo euren ahotan erabili dutenetik aste batzuk igaro direnean, eta momentu hartan sentitu nuen (eta oraindik sentitzen dudana) inpotentzia eta nazka nigan dauzkadanean, astekari honi esplikazio bat eskatzen diot.

Bizi garen gizarte hipokrita honean, argi dago batzuek intimitate eskubidea daukatela: Zipaioek, "toleranteek", "demokratek" etab. Alabaina, besteok ez dugu ez intimitate eskubiderik, ez kalean, atso zaharrek ezer esan gabe, kartelak inpitzeke eskubiderik,...

Azken adibidea pasa den martxoaren 28ko BARRENen ikus dezakegu: zipaioari, beti legez indarra erabili zuen zipaioari, aurpegia desitxuratu zioten, eta niri, aitzik, ez. Non dago hen'iko gazteon intimitate eskubidea? Non dago BARRENeko etika periodistiko, adin nagusikoa ez den gazte baten aurpegia desitxuratu gabe atezare? BENTAN PENAGARRIA!!

Honen aurrean, azken hausnarketa bat egitea geratzen zait: argazki hori publikatzea BARRENeko zuzendariaren edo herriko jauntxoaren baten erabakia izan ote zen. Egia esan, esplikazio bat merezi dudala deritot.

MUNTAIA PERDIODISTIKORIK EZ!!!

Ion Garate Genaga

BARRENek ez du bere gain haritzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzen: **Izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

## 311ENI Ellen charpa:

Datorren ostirala, maiatzak 1, jai eguna denez, **BARREN** ostegunean, hilak 29 banatuko dugu.



## KEXAK

• Herritar batek honako ke-xa hau utzi digu buzoian: "Ez da lehenengo aldiz artikuluetan akats handiak agertzen direla, batez ere datak jartzerakoan. Horregatik arreta gehiago edukitzea eskatu nahi dizuet. Adibidez, P. M. Urruzuno 1970.

urtean ez zen apaiza egin eta 1976-79 urteen bitartean Elgoibarko parrokiaren beste erretoarekin bat zegoen, Urruzuno aspalditik hila zegoelako. Gainera, Odeon zinemari buruz argitaratu zen artikuluan ere antzerako akats bat agertu zen".



## TXALOAK

• 5. eta 6. mailako neska-mutilek Atxutxiamaiak Begirale Taldekoak txalotu nahi dituzte "Hondarrin super-su-

per ondo pasau gendulako. Datorren urtian ere holako irteera bat eixia nahiko gendulke. Animatu antolatzerara!"



• Haritz Dantzari Taldeko kideek eskerrak luzatu nahi dizkiete ondoren aipatzen diren elkarteei, 25, urteurrena betetzen dutela-eta, jasotako opari eta omenaldiengatik. Eskerrak, beraz, Euskal Herriko Txistularien Elkarteari, Mendaroko Txistulariei, Taupada Antzerki Taldeari eta Elgoibarko parrokiari.

# BAI, ESAN?



## Habi Garate

Postaria

Aste honetan Xabi Garate Correos-ko postaria atera zaigu telefonoz bestalde. Askok jakingo duzuen bezala, Correos-ko langileek orduko lanuzteak egin dituzte hil honetan PPren Posta Legearen aurka protestatzeko. Asteazkenean, hilak 29, egun osoko greba egingo dute.

- Zergatik greba orokorra hilaren 29an? - PPK jarri nahi daban Posta Legiak kendu eitzen diolako Correos-i eskusibidadia. Posta liberalizatzeko ein da legia. Adibidez, orainarte 2 kilora arteko korreo interurbanua Correos-ena zan. Lege honekin 350 gramora arteko kartak, postalak etab. bananik izango dira Correos-en eskusibuak. Herri barruko kartetan Correos-ek monopolixua galtzen dau eta liberalizatzen bada, zerbitzu hau enpresa pribatuaren esku geratzeko arriskua dao, oso rentabilia dalako. Oin ere kompetentzia desleiala haundixa dao. Aurrezki kutxa batzuk gaztiak edo jubilauek hartzen ditxue herriko kartak banatzeko, eta hori Correos-en kalterako da. Gohernuak interesa jarri biharko leu-ke Correos mejoartzeko, ze seguruen Conros izango da heni guztixetan ofizina bat dakan enpresa bakarra.

Correos-ek ezingo du **enpresa pribatuekin konpetitu?**

Enpresa pribauak herriko lumak hanatzia rentabilia dala ikusten badati, huru belarri sartuko da zerbitzu hori hartzera. 35 pta. kostatzen da Elgoibarren kartia banatzia edo Cadizera bialtzia, berdin. Herri barruan hori baino merkio ein ke eta oindiok rentabilia izan. Baina haserrietako kartak ez jakoz inori interesatzen, urruti jun bihar dalako eta azkenian ez dia rentabliak. Hori oin bertan gertatzen da Elgoibarren.

- Zuen lanpostuak arriskuan omen daude. - Lanik ez badao ofizina baten, jendia sobran dao eta legiak esaten dau derrigorrezko trasladuak eingo dala. Gu funtzionariuak gera eta lege honekin estatutua mantentzen digute baina leku batian lanik ez badao beste leku batera eruango gaitxue. Guk nahi doguna da legia lotu aurretik airian dauden gai batzuk negoziatzia. Ze Gohernuak inposau ein dau legia, sindikatuekin ezer ere negoziatu gabe. Dana dala grehak oso harrera ona euki dau. 65.000 langile gera Estatu osuan eta %80xak ein dau greba eta Euskal Herrixan %90ak.




## ESKERTZA

*1998ko apirilaren 21ean, 88 urte zituela hil zen  
SALOME ZENARRIZABEITTA OSOROren sendiak,  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola  
hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Zilegi al da inoren telefonoa lpinixatzeaf?



**ANGEL IBARRA**  
52 urte, dendaria

Ez, ez dot batere ondo ikusten. Ez da etikua epailian baimenakin bada ere. Oin CESID-akin pasatzen aidan guztia ziharo aldrebestuta dao.



**ESTHER LIZARRITURRI**  
29 urte, administraria

Ez, sekula ez dao justifikautta. Beste modu batzuk daude informaziva lortzeko. Telefonua interbenitzia azpijokua da.



**CONSTAN NUÑEZ**  
35 urte, kazetaria

Ez zait ondo iruditzen inongo kasutan. Nere ustez orain CESID-aren gai hau guztia hanka sartze handihat izan da. Ez da informazioa lortzeko modua.



**PEDRO MARTII**  
25 urte, espezialista

Ez, sekula ez dago arrazoirik inoren telefonoa interbenitzeko. Gaizki dagoela uste dut; nahiz eta denok jakin erabiltzen den metodoa dela.



**HARLOS URBIZU**  
67 urte, jubilatua

Ez jata justua beixantzen. Txarto dao edozeinen gauza sekretuak eta intimuak entzutia. Ointxe dauan eskandalo guztixa nahiko lotsaoarria da.



**MARISABEL LARIZ**  
41 urte, administraria

Ez, ze inork ez daka zertan jakin nik ze konbersazio eukitzen doten, inongo kasutan. Ez jata ondo beixantzen ez politikuen ez inoren telefonoa "pintxatzia".

## KEMEN Belardenda

*Estutasuna, antsietatea, depresioa, lo eza, tabakistnoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!*

NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practicitioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI  
Osatze naturataren USUI sistema

San Bartolome 25 Tel: 943 74 40 31

**E41,42(.4,41' e3.4. delzp442(,o4**

**Ordutegia zabaldu dugu:**  
14:00etatik 16:00ak arte ere egongo gara  
**Larunbatetan haurrentzako ikastaro bereziak**  
Informazio gehiago telefonoz deituta edo gugana etorrita

Trenbide kalea, 23 · Tel: 943 74 20 67

## Ikastola eta Artetx3 etxebizitzak egiteko plan partziala onartu du Aldundiak

Guztira 258 etxe altxatuko dira, horietatik 168 babes ofizialekoak

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak, Urruzuno sektorean 258 etxebizitza eraikitzeke plan partziala onartu berri du, horietatik 168 babes ofizialekoak izango direlarik. San Bartolome ikastolaren eta Melitonzo zubiaren artean etxe-blokeak eta beste zenbait txalet eta familibakarreko adosatua eraikiko dira.

Lau urteko epea da sektorearen urbanizazioa, zesioa eta ekidistribuzioa egiteko legeak markatutako beharrezko pausoak betetzeko; eta beste bi urte eraikuntza lizentziak eskatzeko.



*Ikastola eta Meliton bitartean babes ofizialeko etxeak eraikiko dira plan honen arabera.*

Etxebizitzak trenbidearen eta autopistaren bitartean geratzen den tartean eraikiko dira, Iñiguez de Karkizano etxeak inguratuz. Gainera, errepide berri bat egingo da, Ermuaran

Bide kalea Meliton zubi biko N-634 enepidearekin lotuko delarik. Horretarako, beharrezkoa izango da trenbide azpitik pasabide bat egitea, hiltegi zahararren parean.

### • Administrazio zentralak Elgoibarko Udalaren lan eskainfaa publiko bat geldiarazi du

Duela zenbait hilabete Elgoibarko Udalak Kultura sailerako administrazio laguntzaile bat kontratatzeke deialdi publikoa egin zuen. Dirudienez, oinarrietan ez zen azaltzen insumituak ezin zirela aipaturiko postura aurkeztu, horregatik, Administrazio Zentralak oposaketak geldiarazi egin ditu. Momentuz 94 pertsonak izena emanda zuten administrari laguntzaile

posturako. Estatuko Abokatuaren bulegoak aurkeztu du errekurtsioa Euskal Herriko Auzitegi Goreneko Kontenzioso Administrazioan, eta Elgoibarko Udalak abokatuen esku laga du gaiaren defentsa. Gillermo Garate alkateak esan duenez, "insumituei aukera berberak ematea erabaki genuen Udaletxe honetan, eta haiek defendatzen jarraituko dugu".

### • Administrari lanpostua Udaletxean

Elgoibarko Udaletxean Administrazio Orokorreko administrazio behar dute. Dagoeneko argitaratu dira oinarriak eta oposaketan parte hartu nahi dutenek maiatzaren Sera arte dute izena emateko epea. Norbaitek informazio gehiago eskuratu nahiko balu, Udaletxeke Idazkaritza Sailera jo dezake.

### • PPren jarrera Udal Aurrekontuen aurrean

Aurreko zenbakian eman genuen onartu berri diren Udal Aurrekontuen berri. Juan Carlos Abianek, PPko zinegotziak, hainbat emendakin aurkeztu zituen. Besteak beste, zenbait diru partida aldatu eta, "Aita Agirre plazan konponketak egin ahal izateko, garajeak edo aparkalekuak sortzeko, Urasandi auzoan gaizki dagoen errebuelta konpontzeko eta Pedro Muguruza kalea asfaltatzeko" dirua eskatu zuen. Era berean diru partida batzuk gutxitzearen alde agertu zen, "adibidez pelikulen alokairua, dietak edo publizitate gastuak". Horrez gain, Abianek iazko aurrekontuetan zegoen inbertsio kopurua eta aurtengoa konparatu zituen, "iaz % 18koa bazen, aurtun aurrikusita dagoena % 8a" dela esanaz.

**Kidea**  
**ASESORIA ETA CONSULTING**  
 - Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -  
**INBERTSIO PROIEKTUAK**  
 Ibalatte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

**Jose M. Atrai**  
**(Txema)**  
 - Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.  
**Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu**  
**San Bartolome 28-1 ezk • Tel 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14**

**• Intsumitu baten atx doketa bere lantokian**

Joan den apirilaren 16ko goizean Ertzantzako kideek Rodisa enpresan lan egiten duen I. Lekube intsumitua atxilotu zuten. Rodisako Enpresa Batzordeak bidalitako presta ohar baten arabera, "Ertzantza lantegi barrura sartu eta gure lankidea atxilotu zuten. Gure elkartasuna adierazi nahi diogu gazte honi, gizarte desmilitarizatu baten aldeko borroka honetan berarekin gaudela jakin dezan". Era berean, Enpresa B atzordeak objezio fiskalaren aldeko jarrera har dezaten animatu nahi ditu langile guztiak, "Defentsarako izan beharko litzatekeen diru kopuru hori, gizarte solidario eta justuago bat erakitzeko alternatibetarako izan dadin".

**• Telebistako lehiaketa baterako jendea behar da**

Produktora bat telebistarako lehiaketa ari da prestatzen eta partehartzaileen beharra dutela aditzera eman digute. Saio bakoitzean lau partehartzaile egongo dira. Bakoitzaren proiektu pertsonalak finantziatzeko egingo dituzten gastuak ordaindu ahal izateko arituko dira lehian. Batzuetan, proiektuak helburu material edo profesionala izan dezake eta bestetan, aldiz, izaera humanitarioa ere bai. Aste bakoitzeko irabazleak hurrengo astean itzultzeko aukera izango du gastuak ordaintzeko kopuru osoa lortu arte. Lehiaketa gaztelaniaz izango da. Harremanetarako telefona 94 621 53 00 da (Asier Bilbao).

**Danobat kooperatibak 5.000 milioitik gora fakturatu du 97an**

Azken urtean 35 langile berri hartu ditu enpresa honek

**A**rriaga industrialdean kokatua dagoen Danobat S. Cooperatiba enpresak urteko batzar orokorra egin zuen joan den ostiral arratsaldean. Herriko Antzokian 228 lagun elkartu ziren, 205 bazkide eta 22 langile. Mahaiaren bueltan Kontsenu En-tore osoa bildu zen, mahaiburuan eserita Ales Arrieta lehendakaria, Agustin Aranbarri Danobateko zuzendari gerentea eta Anton Etxeberria Grupo Danobateko zuzendari nagusia zeudelarik.

Batzarrean Danobatek 97an izan duen ekitaldi ekonomikoaren berri eman zuten. Horrela, bada, Danobatek 5.000 milioitik gorako fakturazioa izan

zuen 97an, aurreko urtearen antzera. Enpresa elgoibartarraren martxa bide onetik doala erakusten dute datuok eta irabaziak ere egon omen dira. 98rako asmoak oso baikorrak dira. I 997an eskaera asko igo zenez, aurten fakturazioa igo egingo dela azaldu digute Danobateko ordezkariak. Fakturazioaren %65etik gora esportatu egiten da, batez ere Alemania, Frantzia, Britaina Handia, Hego Amerika eta Asiara.

Lanpostuak sortzen

Danobat S. Coop. enpresak bizi duen une gozoak izan du eraginik lan arloan. 97 urte amaieran, 420 pertsonak

egiten zuten lan Danobaten, 96an baino 35 langile gehiagok. Jubilatutako 20 langileen ordezkioak eta beste 15 pertsona berri kontratatu ziren Danobaten 97an, 35 pertsona guztira. Hauez gain, 98an heste 42 lagun hartu dituzte kontratupean. Aurrekoei batuta, 77 langile berri dira guztira.



**H EZKU NTZA**

**97/98 matrikulazio kanpainako datuak**

**97/98 matrikulazio kanpaina**

Dasa den otsailaren 26tik martxoaren 11ra bitartera luzatu zen herriko ikastetxeetan ikasleak matrikulatzeko epea. Kanpaina honetan Lehen Hezkuntzako ikasleen izen-emateak jasotzen dira, eta zenbait ikastetxetan, DBHkoak ere bai. 97/98 kanpainako Lehen Hezkuntzako datuak ondorengo taulan agertzen dira.

	2 URTEko ikasleak	3 URTEko ikasleak	IKASLEAK GUZTIRA
IKASTOLA	23	32	(D eredu) 540
HERRI ESKOLA	22	23	(D eredu) 181
PILAR	22	16	(D eredu) 82 (B eredu) 244



## Jose Gurrutxaga korrikalari beteteranoa omenduko dute V. Haur Krosean

San Bartolome Ikastolak Haur Krosaren V. edizioa antolatu du iganderako, hilak 26. Lasterketa guztiak bukatu ondoren Jose Gurrutxaga korrikalari beteteranoari omenaldia eskainiko zaio. Ikastolaren izenean, lehenakariak opari bat emango dio, "gaur egungo korrikalariarentzat ereduia izan baita". Jose Gurrutxagak 76 urte ditu eta beti izan da korrikalari gazteen-tzako erreferentzia. Mugerza Nazioarteko krosaren antolakuntzart parte hartzen du, epaile lanetan ere aritzen da, baina batez ere, saltakari bezala da ezaguna. Gizon honek Gtupuzko-ako, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan titulu hat baino gehiago irahazi izan ditu eta munduko txapelundunordea izan da bi aldiz.

Aurtengo krosean, neska-mutilen partehartzea oso handia izango da, 514 hurrek eman baitute izena. Lehen lasterketa eguerdiko 12:15ean hasiko da eta ordu laurden beranduago hurrengo lasterketari emango zaio hasiera. Azken, eguerdiko ordu batean korrituko da. Plaza Handian dute irteera eta helmuga lasterketa guztiek, hamalau lasterketa denera. Jarraian sari banaketa ekitaldia hasiko da. Partaide guztiek jasoko dute domina eta adin bakoitzeko lehen neskek eta lehen mutilak trofeoak izango dute.



## • Bi bilbotar atxilotu ditu lidalizaingoak

Udalzaingoak bi gazte atxilotu zituen asteazken egunentian, hilak 22, San Roke kaleko ostalaritza gunebatean lapurtzeko asmoa zutenean. Gertakaria goizeko 4ak aldera gertatu zen. Auzotar batek egindako deiari esker, Udalzaingoko kideek 28 urteko A.P.A. bilbotarra, itxita zegoen taberna batera sartzen saiatzen harapatu zuten. Honekin batera, 26 urteko N.B.B. bilbotar emakumea ere atxilotu zuten. Azken hau tabernaren alboan zegoen, auto batean lagunaren zain. Ondoren, Elgoibarko Pedro Muguruza etorbidean beste ostalaritza gunebatean lapurtzen saiatu direla jakin da.

## • 40 gazte aurkeztu dira inguruglro bekak lortzeko

40 bat gaztek bete du honez gero Deba Beheko Mankomunitateak kaleratutako ingurugiro beken eskaera. Bekak lortzeko, profesionalki alor hauetan lan egiteko nahia eta ikasketa hauek jasotzeko gai direla erakutsi beharko dute gazteek. Eskaerak aurkezteko azken eguna maiatzaren 4a da eta 2,5 milioi pta. banatuko dira bi beken artean. Lehenengoa, isurketa eta ur-hondakinen bereizketa-teknikak lantzeko da. Bigarren dirulaguntzak, berriz, olioien eta industri lubrikatzaileen bereizketa fisiko-kimikoa lortzeko trebakuntza du helburu. Bekaren bat eskuratzeko, beharrezkoa izango da Deba Behekoa eta Kimikan Injineru Teknikoa izatea.

## • Eguneko zentroa martxan

Jubilatu Etxean kokatzen den Eguneko Zentroa martxan da dagoeneko. Pertsona nagusi, gaixo edo ezinduak dituzten familiei egunean zenbait orduz laguntza eta atsedena eskaintzeko helburuarekin sortu da. Bide batez, gaixoei behar duten arreta eta laguntza eskaintzen diete bi langile adituk, hau da, garbitu egiten dituzte, medikuak agindutako botikak eman, janaria, hainbat ekintza antolatzen dituzte denborapasa gisa eta gaixoaren independentzia garatzeko ariketak egiten dituzte, besteak beste. Era berean, Eguneko Zentroak garraio zerbitzua eskaintzen du, hau da, gaixoak etxetik zentrorra eta buelta. 10 pertsonarentzako lekua duen zentroak 110 metro karratuko azalera du. Norbaitek interesa balu, Ongizate zerbitzura jo besterik ez du, edo 74 10 08 telefonora deitu.

## • Finalista Egunerako mendien zerrendak aurkeztu behar dira

Morkaikoko zuzendaritzak aditzera eman duenez, Finalista Eguneko sari banaketan dornina eskuratu nahi dutenek, hilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dute urtean zehar igo dituzten mendien zerrenda. Zerrenda orriak elkartearen esku utzi beharko dira ohiko leku eta orduetan.



## Hondarribin Aste santuko oporrak pasaUen

42 hurrek hartu zuten parte Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiaka Begirale Taldeak antolatutako Udaleku Itxietan. Hilaren 15etik 18ra bitartean, Aste santuko oporrak zirela aprobetxatuz, Hondarribira joan ziren Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako neska-mutilak. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, oso ondo pasatu zutela esan digute Atxutxiamaiakako begiraleek. Hondarribiko herria ezagutzeko tartetxo bat ere izan zuten.

Silbia Hernandezek 22 urte ditu eta musika ikasketak ari da egiten. Aurtentzen amaituko du piano karrera. Orain dela lau urte Itxaropena abesbatzean hasi zen, ia kasualitatez, sekula ez baitzuen pentsatu koroko kidea izaterik. **Kontua da, 1998ko urtarriletik, Itxaropenako zuzendari berria dugula. Joan den domekan izan zuetz debuta eta datorren igandean Orion izango da. Elkarriketa honetan esan digu, 16 urtetik gorako jendea animatu nahi duela Itxaropena abesbatza parte hartzeko. Nahi duenak, jakin dezala asteazkenetan elkartzeko direla, gaueko 21:30ean Kultur Etxeko ganbaran.**

# SILBIA HERNANDEZ

## "Koroko zuzendaria izatea gehixogustatzen jata abestia baino"

—**Itxaropena abesbatzako zuzendari. Nolatan?**

- Nerea Ugarte izan da bost urte hauetan zuzendaria baina, denbora falta zala eta, lagatzia erabaki zaban. Ni korda arduraduna nitzan eta korokuak ni aukeratu ninduten zuzendari.

—**Gustura edo ardura bandia?**

- Hasieran pentsau naban oso zaila izango zala baina gustura nao. Gehixogustatzen jata abestia baino. Gainera, piano klasiak ere ematen ditzut noizian behin eta koruan bertan korda arduraduna nitzan, horregatik, nahiko ohixuta nauan alde horretatik. Koroko jendiak beti errespetatu izan ditz. Bentaja bat izan da. Hala ere desberdina da.

—**Zein zentzutan?**

Kriston aldia dao. Txip aldaketa bat eman bihar da. Oin nik agintzen dot eta nere esku dao erresponsabilidade guztia. Nik aukeratzen ditzut abestixak, nik preparatu bihar dot dana, errieta nik ein bihar dot... Argi euki bihar dozu zure lana dala korua aurrera urtetzia eta konfiantza hori einan bihar diezula. Oin ikusten dot nere burua zuzendari moduan eta konsziente naiz nik agintzen dotela. Eta hori inportantia da, zure funtziva onartzia.

—**Zein da jarraitu behar duzun estilo edo linea?**

- Abestixak aukeratze-ko orduan oso garbi daka-gu danetik abestu nahi dogula, bariedadia gustatzen

jaku eta estilo asko konbinatzia. Jende gaztiak gauza berriak nahi izaten ditxu, alaixak, eta nagusixek ere berdin. Gainera, kaleko jendiari danetik entzuetia gustatzen jako. Jende askok pentsatzen dau koruetan abesti aspergarriak kantatzen ditzugula eta hori ez da hola.

—**Aurretik zuk prestatu beharko duzu dena, ez?**

- Bai. Abestixak aukeratu eta nere kontura preparamen ditzut, ahots guztixak lantzen ditzut eta ispiluan aurrian entsaiatzen dot gestuak eta zela zuzendua bihar doten. Oin zuzendaritzari buruzko ikas-tantak ari naiz eitxen eta gauza asko daude ikasteko baina praktikiakin ikasten da gehixenbat.

—**Ez al da sentsazio arraroa zuzendari paperean aritzea?**

Hasieran nahiko arrarua eitxen da, ze nahiko ridikulua ikusten dozu zure burua, baina gero ohixu itxen zera. Zailena da koroko jendiari ondo azaltzia zer esan nahi dozun, noiz abestu bihar daben altuo edo bajo, polikixo edo azkarro... Poliki-poliki ohitzen gaude.

—**Zer moduz debuta?**

Hasi aurretik nahiko urduri nauan baina gero, urten nitzanian relajau eta ahal naban onduen itxeko asmuakin azaldu nitzan. Gainera, koroko jendia ere nerbioso egoten da eta zuk trunkilidadia eman bihar diezu. Benetan disfratau naban. Esperientzia ona izan zan eta hori inportantia da.

### EESTEE1 ESANA

"Oso langdea da eta idelak oso garbi ditu. abesbatza zuzentzeko"

NURIA BERGUA, koroko kidea



# ETXE-APAINKETA

NORI x-ARTly (.,

D pi O L,O\_,11, I K

**Gaur egun "kartara" egiten dira sukaideak. Hau da, bezeroak aukeratzen du zein material nahi duen, zein estilo eta zein kolore. Neurrira egiten dira sukaldetik gehienak eta espazio falta arazoa izaten denez, etxeak gero eta txikiagoak izaten baitira, ahalik eta tokirik gehiena aprobetxatzea izaten da saitzaille eta fabrikatzaileen helburua.**

*nio sukaldeak-eko* Martinek esan digunez, "lau material daude gaur egun sukaldeak egiteko: formika, pvc, eta egurra". Jendeak lakatuak aukeratzen ditu batez ere, "egurraren betak oso ondo imitatzen dituzte eta koloreetan aukera handia dago. Gainera, prezio aldetik nahiko ondo daude eta formika baino askoz material hobea dira".

Nagusitzen den kolorea zuria da, jendeak argitasuna eta handitasuna bilatu nahi izaten baitu. Hala ere, gaur egun moda-modakoak dira kolore konbinatuak. Moda hau altzarrietan ez ezik elektragailuetan ere ikus daiteke. Fabrikatzaile askok hozkailuak eta garbigailuak koloreetan egiten ari dira.

Estalki edo enzimerei dagokienean, granittoa azpimarratu behar da, "formika baino garestiagoa da, baina hobea. Gai-nontzeko altzariak material merkeagokoak jarri arren merezi du enzimera ona aukeratzea", esan digu Martinek.

Azkenik, argien arloan ere izan da berrikuntzarik. Izan ere, armairuetan argi halogenoak jartzearen aldekoa da jende asko, "batez ere dekorazioari begira egiten da, armairu edo bitrinaren bat azpimarratu nahi denean".

Esanak esan, neurrira egin eta "kartara" aukeratutako sukaldeak dira nagusi gaur egun. Kolore aukera zabala eskaintzen da eta txokorik txiki eta aldrebesenak ere aprobe-txatzen dira.



## BRONTZEZKO IRUDIAK

- Opariak
- Erakusketa eta zuzeneko salmenta
- Enpresentzako opari eksklusiboak

Alfa Arten topatuko duzu zure etxea dekoratzeko nahi duzun irudia



Otaola, 13 EIBAR

Tel: 943 20 31 32/20 32 10 - Faxa: 943 20 86 33

E-mail: [alfaarte@alfaarte.es](mailto:alfaarte@alfaarte.es)



# SUKALDE FAEIRMARIK HANDIENA

**ZUZENEKO SALMENTA  
800 m2ko erakusketa**

Sukaldeak  
Bainuak  
Mahaiak  
Eiektragailuak  
Granitoa eta egurra



**Larunbat goiz eta  
arratsaldeetan  
|| REKITA**

**Landeta auzoa, z/g  
P. K. 90 20730 AZPEITIA**

**Tel: 943 81 57 05/943 15 00 63  
Faxa: 943 81 62 21**

# ETXEA OIHALEZ

**Argi dago etxe bat jazteko orduan detaile guztiek dutela garrantzia. Egongela hutsik ikusi edo ohea, mesilak, armairuak, koadroak, argiak eta loreak jarritakoan begiratuz gero, oso alde handia izaten da.**

**Eta aldaketa horretan berebiziko pisua dute bai gortinek baita alfonbrek ere. Dekoratzear gain, etxeari giro goxo eta epela ematen diote, *Lau, Ferpi eta Gorrotio* dendetako arduradunak bat datoz esatean gaur egun gero eta garrantzi gehiago dutela gortina eta alfonbrek dekorazio elementu bezala.**

**K**otoia, linoa... material asko daude gortinak aukeratzeko orduan, baita estiloak ere. Garai batean etxe gehienetan gortina handiak ziren nagusi, alderik alde jartzen zirenak. Gaur egun, aldiz, estorek lekua kendu diete besteei. Estoreek jende gaztearen artean izan dute harrerarik onena. Sukaldean bisiloak jartzen dira batik bat eta aspaldian altuera desberdinekin jokatzeari oso modan dago. Esaterako lau orri dituen leihoan, erdiko orrietan ertzeetan baino motzagoak jartzen dira.

Kolore zuriak eta kremak dira gehien saltzen direnak, garbitasun eta argitasun sentsazioa ematen dutelako. Hala ere, badira sofaren tapizatuarekin, sukaldeko aukien kuxinekin edo ohe-

aren edredoiarekin konbinatu nahi izaten dutenak, gortinak eta tapizatuak berdinak jarritz.

## Alfonbrak

Garai batean alfonbrarert funtzio bakarra lurra estaltzea zen baina gaur egun distiradun egur polita jartzen da etxeetan eta alfonbren bidez dekoratu egin nahi izaten da. Gehienbat, harizko alfonbrak saltzen dira baina gaur egun koko-fibraz eginiko alfonbrak ere aukeran daude, merkeagoak direlarik. Hala ere, azken hauek latzagoak dira eta horregatik, sarrera eta pasiloetarako ondo badatoz ere, egongela eta logelearako askoz goxoagoak dira harizkoak edo

kotoiz eginiko jarapa, kilim eta antzekoak.

Hor daude, baita ere, ekialdetik ekarritakoak, alfonbra perstsak esaterako. Hauek dira garestienak, eskulana izateaz gain atzeritik inportatzen direlako. Ekialdeko alfonbra guztiak dira desberdinak, ez daude bi berdinak. Jendeak koadroak bailiran jartzen ditu, desberdinak baina ongi konbinatuak, etxeari ukitu berezia emateko.



Zure etxerako  
nahi dugun giroa  
sortuko dugu

San Bartolome, 21  
Tel: 943 74 01 91



# Ariondo

Santa Ana, 4/6  
Tel: 943 74 12 34



**Armairua diseinatuko dizugu barruko banaketarekin, zure gustu eta beharren arabera, kolore eta bestelako elementuak koordinatuz.**

**Aukera zabala osagarrietan: zapateroa, kasileroa, bitxitegia, prakak isekitzekoa, telaz forraturiko kaxak, estalkiak, pertxak, etab.**

# LAU Pintura eta dekorazioa

San Frantzisko, 39/42 • Tel: 943 74 18 89/74 06 73

- Proiektuak
- Erreformak
- Zoruak
- Neurrira eginiko armairuak
- Enpapelatuak
- Pinturak
- Koadroak
- Gortinak

**ETXEAN BERTAN  
HARTZEN DITUGU NERURRIAK**



**Alfonbretan aukera zabala:  
orientalak, turkiarrak, nepalekoak..**

# ARMAIRU ENPOTRATUAKg

AKTIKorrA,<sup>n-T</sup>

ES E IKA

Ohea, mesilak eta armairua. Hiru elementuok, gutxienez, osatzen dute egongela bat. Gero eta gehiago dira armairu enpotratuak jartzea aukeratzen dutenak. Gelaren banaketak lagatzen badu, hauek dira armairurik egokienak, toki gutxi okupatuz izugarri aprobeztatzen direlako. Gainera, merkatuan gero eta armairu mota gehiago dago.

**J**aristi aroztegiak eta *friondo* altzarietan esan diguteenez, hiru ate mota daude armairu enpotratuentzat:

- **Korrederak:** Asko jartzen dira gelari ez baitiote batera espaziorik kentzen.

- **Batienteak:** Betiko atea dira, gehienok ezagutzen ditugunak.

- **Korredera plegableak:** Funtzionalenak. Aurreko bien abantailak dituzte. Ez diote espaziorik kentzen ez gelari eta ez armairuari. Garestienak dira.

Akabatuei dakienean oso modan daude lakatuak. Izan ere, aukera izugarria eskaintzen dute eta bezeroen behar eta gustuetara egokitzen dira. Armairuak ez dira praktikotasunera mugatzen, hau da, gero eta gehiago esan daiteke dekorazio elementu bat



gehiago direla. Horregatik, ateen koloreekin asko jokaten da. Azken boladan, gainera, joera dago armairuen atea beiraz estali eta barruko aldetik gortinak jartzeko. Hala ere, gehien saltzen direnak betiko ate lisoak dira, ispluekin ala gabe. Gaur egun, gainera, enpotratua jartzeko hutsunerik ez dagoen geletan armairua neurri- egin eta eskaiola aurrera ekartzen da, enpotratua balitz bezala geratzen delarik. Elementu osagarriak dago- kienean, izugarri aurre- ratu da. Izan ere, gorba- tentzako pertxa txiki eta bereziak, zapatak gor- detzekoak, alkandorentzako kajoi bereziak eta beste hainbat eta hainbat gauza jar daitezke armairu bakar batean. Guztiak bezeroaren behar eta gus- tuen arabera; praktikotasuna eta estetika uztartuz.



# Ferpi

dekorazioa

San Bartolome, 28  
Tel: 943 74 43 45



# Juaristi aroztegia

Santa Ana, 16 Elgoibur

Tei: 943 74 29 94



- LEIHOAK  
Egurra - alumini**Off**  
Aluminioa  
PVCa
- ARMAIRU  
ENPOTRATUAK
- ATEAK
- TARIMAK



# ZERAMEK A

[ Es/41...KO EL

**Diseinua ate joka dabil zentzu guztietan. Zeramiken arlora ere iritsi da. Eskaintza gero eta zabalagoa da eta jendea ere gero eta gehiago ohartzen da zeramikaren bidez etxea apaindu eta jantzi egin daitekeela, ukitu pertsonala emanaz.**

*rike Antxustegiren* hitzetan, "gauza guztietan zerbait berezia eta pertsonala nahi izaten dugu jartzea, orijinala. Zeramikarekin gauza bera gertatzen da. Bezeroak badaki zer nahi duen. Horregatik, zeramikaren mundua gero eta zabalagoa dela esan daiteke".

Askok eta askok estilo desberdinak konbinatzera jotzen dute, "lehen, estilo bat aukeratu eta linea horretan jartzen zen ia etxe guztia, hasi sukaldea eta segi komunetan. Gaur egun, estilo desberdinak nahastu daitezke bakoitzaren gustuko dekorazioa bilatu arte". Garai batean garbitzeko erraza zen azulejoa aukeratzen zen eta kitto. Gaur egun, garbitzeko erraza izateaz gain, estetikoki ere dekorazioan lagunduko duen elementua bihurtu da zermika. Batez ere sukaldean eta bainugelan jartzen dira azulejoak, "baina batzuk, egongelan eta pasiloan egurra izan eta gero, azulejoa jartzea erabakitzen dute. Egurraren mantenua garestiagoa da azulejoarena baino. Baldosak gogorragoak dira eta gehiago irauten dute".

Azken hamar urteotan bilakaera izugarria izan da arlo honetan. Ia ezer ez egotetik, denetik egotera pasa gara. Eta, gainera, "egunero gauza berriak sortzen ari dira", adierazi digu Enrikek. Hori bai, bezeroak duen aurrekontuaren arabera ere egokitu behar da proiektua, "esaterako, orain oso modan daude mosaiko erako azulejo txiki-txikiak, antzina



jartzen ziren modukoak. Jartzea oso nekoso da eta horrek garestitu egiten du produktua".

Lau gauza bakarrik daudela uste badugu ere, material ugari dago zeramikaren munduan: azulejoa, gres-a, marmola, granittoa, egositako buztina, baldosa hidraulikoa, terrazoa.... Toki bakoitzaren zat material konkretua dago eta horiek behar bezala konbinatzen jakin behar da, beti ere, ukitu pertsonal horren bila.

**Erakusketa eta bulegoak:**  
Antonio Arrillaga, 6/8 behea  
P. K. 83  
Tel: 943 74 33 44/74 06 92  
Fax: 943 74 37 11

**Biltegia:**  
Olaso Industrialdea - Olasope. 5  
Tel: 943 74 20 38/74 23 71

**ceramicas  
Anchiztegui**



**A**rgazki hau 1957. urtekoa da eta **Ana Garatek** ekarri digu. Hiru emakume josten agertzen zaizkigu San Bartolome kalean zegoen Genaro Garateren sastreterian. Askok jakingo duzuen bezala, gaur

egun Garate jantzidenda dago bertan, Genaroren ondorengo ardurapean.

Jostun lanetan ari diren hiru emakume hauek **Mari Garate (t)**, **Antonia Goiarzun (t)** (Mariren ama) eta **Claudia Mendizabal**, Don Severiano apaizaren arreba dira.

Publizitate erreportajea

## PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturaren, euskararen, kirolaren eta abarrekotara kontaezina ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqu Dela's jaunarekin gaude (Cafds Baque enpresako Zuzendaria)

**Galdera:** Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztieran ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik'?

**Emilio:** Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatiatatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

**G.** Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

**E.** Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta ardatzatu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

**G.** Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

**E.** Hala da, Saskibaloian. Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoak jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Ennlin Baque, Cals BAQUElari Zuzendaria Gerentea.

**G.** Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

**E.** Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago hehar izan.

Cafds Baque gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldu bedi erredua.

LARRAITZ ODRIOZOLA

## Kike Ormaetxeak ez du aurrerantzean Haundi entrenatuko

Eibarrek fitxatu du datorren denboraldirako

Kike Ormaetxea eibartarrak lau urte eman ditu Elgoibar-ko Haundi futbol taldea entrenatzen. Astearte arratsaldean jakin zen ofizialki Eibarrera doala. C. D. Elgoibarko lehendakariaren esanetan, "Kikek, oso entrenatzaile ona izan dala erakutsi dau, baina ez hori bakarrik. Entrenatzaile ona izan bada, pertsona bezela hobia izan da. Entrenatzaile bat baino gehixo izan da, klubeko arazuetan parte hartu dau. Pena ematen ditz batetik, baina bestetik, asko poztu naiz beragatik, aukera haundixa eskaini diotelako".

Datorren denboraldian Haundi nork entrenatuko duen jakiterik ez dago oraindik. "Hori zuzendaritza

berrixan esku dao". Izan ere, gai honi buruz berba egiteko bilera egin zuten zuzendaritzakoek joan den astearte arratsaldean. 20 bat bazkide bildu ziren Kultur Etxean. Zuzendaritzarako errekanbioa topatzea da klubaren premia nagusia baina, itxuraz denez, momentuz ez dago hautagairik. Bileran bazkide bat prest azaldu zen lantalde bat osatzeko, baina badirudi ekimen honekin ez jarraitzea erabaki duela. Dena den, Jose Ramon Zabala lehendakariaren esanetan, "datozen egunetan asanblea eingo dogu direktibakuek eta norbait aurkezteko esperantza daka-



Kike Ormaetxeak lau denboraldi eman ditu Haundi entrenatzen.

## Paleolitikoko gizakiak bezala bizitzen

Arkeologiari buruzko ikastaroa antolatu du Leizarpe Elkarteak

Leizarpe Espeleologia Taldeak 'Arkeologia Esperimentalari buruzko I. ikastaroa' antolatu du maiatzaren letik 3ra bitartean. Paleolitikotik aro Neolitikora bitartean bizi izan ziren gizakien bizimodua gertutik ezagutzeko, eta gizaki hauen bilakaera ulertzen saiatzea da ikastaroaren nahia. Historian 200.000 urte atzera eginez, naturarekin kontaktuan eta inoren laguntzarik gabe iraunbizitzeko teknikak ere ikasiko dituzte, besteak beste.

**C**ulture arbasoek erabiltzen zituzten 1 anabesak, ehizatze tresneria eta beste zenbait teknika ezagutzeko ikasbideak emango dira. Duela 200.000 urte aizkorak nola egiten zituzten ikusiko dute, adibidez. Lantaldeko lanari esker, neolitiko garaiko etxola berregingo dute, antzinako sukalde eta guzti izango duena. Honela, ogia nola egiten zuten, okela gordetzeko erabiltzen zituzten teknikak eta orokorrean, orduko gizakiek erabiltzen zituzten elikagai mota ezberdinak ezagutzeko dituzte. Leizarpekoek esan digutenez, ikastarokideek ez dute lo egiteko kanpinik eraman behariko,

etxola egin ondoren bertan egin behar bako baitute lo. Honez gain, landare pozointsuak eta jatekoak bereizteko ezagupideak ere emango dira, eta norberak jasotako fibra bejetalez eginiko otarrak landuko dira bakoitzak bere eskuez baliatuz.

### 15 lagun baino ez

Ikastaroan parte hartzeko 5.000 pta.ko ordaindu behar dira. Janaria, bakoitzaren beharrezko asegurua eta materiala ordaintzeko izango da diru hori. Ikastaroan 15 lagunek baino ezingo dute parte hartu, hortaz, lehenbailehen 908 31 35 53 zenbakira deitu eta izen-abizena, jaiotze data, NAN eta telefono zenbakia eman. Irteera maiatzaren 1 ean izango da Santa Klara 18an, Leizarperen egoitzan, goizeko 9:30ean. Ikastarokide bakoitzak litro erdiko katilu bat, esterila, lotarako zakua eta labana txikia eraman behar ditu.



Ikastaroan parte hartzen dutenek Paleolitikoko etxola bat egiten ikasiko dute, besteak beste.

# Elgoibarko 111. Duatloia jokatu da zapatuan, hilak 25

Lasterketaren irabazlea Euskadiko txapelduna izango da

**B**ihar, hilak 25, Elgoibar-ko VII. Duatloia jokatu da Elgoibarren arratsaldeko 15:30ean hasita. Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutakoa da, Urgazi Triatloi Taldearen laguntzaz eta Udal Patronatuaren babesaz. Plaza Handian kokatuko dira irteera eta helmuga eta hertan egongo dira baita ere, lasterkariaren boxeak. Duatloi honetan bi kirol konbinatuko dira, saltaka eta bizikleta. Egin beharreko ibilbidea, berriz, hiru partziaz osatua dago, lehenengo eta hirugarren partzialak saltaka egin beharrekoak dira eta bigarrena bizikletaz.

## Korrikalari onenak

Azken ordura arte ez da jakiterik izango zenbat partehartzaile izango diren ezta hauen izen-abizenik ere. Jakin duguna zera da, 225 edo 250 bat korrikalari espero dituztela Urgazikoek eta tartean, Salazar mejiarra, Bodegas donostiarra eta lau kubatar ere izango direla. Haez gain, Euskal He-

rriko eta Estatuko onenak eta zenbait europar eta amerikar ere etortzea espero dute.

Lasterketa arratsaldeko 15:30ean hasiko da saltakako probarekin (5.500 m.). Ondoren bizikleta gainean 33 km. egin beharko dituzte eta amaitzeko, 3.500 m. saltaka. Ibilbide osoa bukatu orduko 18:00ak inguru izango dira antolatzaileen kalkuluen arabera. Jarraian sari banaketa hasiko da. Aipagarria da Elgoibarko Duatloia "Lehendakari Txapelketa" ere badela, eta, hortaz, lasterketa hau irabazten duena Euskadiko txapeldun izendatuko dute. Honez gain, Euskadiko zirkuitoa osatzen duten lasterketa puntuagarrien artean dago Elgoibarko Duatloia. Sarietako dagokienean, maila bakoitzeko lehen euskaldunak trofeoa izango du. Irabazleak Radio Estudiok emandako sari nagusia jasoko du: 25.000 pta. eta oroigarria. Hurrengo hamarrek ere jasoko dute sariren bat. Nesken kategorian lehen hiruren artean banatuko dira sariak.

## IBLBIDEA

### IRTEERA ETA BOXEAK: Plaza Handian

• **Korrika (5.500 m.):** San Bartolome, Errosario, Santa Ana, Trenbide, Ezenarro, San Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, Santa Ana, Trenbide, Ezenarro, Madala, Pedro Muguruza, Karkizao, San Pedroko etxeetan buelta, Madala, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handia.

• **Bizikleta (33 km.):** Elgoibar, Altzola, Mendaro, Deba, Mutriku, Kalbario, Mendaro, Altzola eta Elgoibar.

• **Korrika (3.500 m.):** Plaza Handia, Santa Ana, Trenbide, Ezenarro, Madala, Pedro Muguruza, San Pedroko etxeak, Madala, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handia.



225 eta 250 partaide bitartean espero dituzte zapatuko duatloian.

## K1ROL ALBISTEAK

### • Pitar Arriola, Euskadiko hirugarrena maratoi erdian

Pilar Arriola korrikalariak brontzeko domina lortu du Euskadiko maratoi erdiko txapelketan. Joan den domekan Bilbon jokatu zen Euskadiko txapelketa eta Pilarrek hirugarren lekuan amaitu zuen emakumeen kategorian absolutuan. Lasterketaren 21 km.ko ibilbidea 1h30'04"tan burutu zuen Pilarrek.

### • Unai Arrieta, Espainiako Txapelketako lehen faseko lokalari onena izendatu dute

Eibarko Arrate eskubaloit taldean jokatzen duen Unai Arrieta elgoibartarrak, jokalaria onenari ematen zaion saria jaso du Espainiako Txapelketako lehen fasean. Arrate taldeak Espainiako Txapelketako lehen fase honetan Aragoa, Katalunia eta Nafarroako taldeen aurka jokatu du. Talde guztietatik Arratek lortu du hurrengo fasera pasatzea eta gainera, Unai Arrieta jokalaria onena aukeratu dute.



## MAITZAR

### Eskubaloia

Pulpo 1 - Unceta Elg. 24 (Kad. nes.)

Pulpo 11 - Pneumax Elg. 29 (Kad. mut.)

Pagoaga Elg. 22 - Aloria Mendi 18 (Jub. nes.)

Jauja 22 - Elgoibar 24 (Seniorrak)

## AGNIA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 25

16:30 Pedrusko - Beraun (2. erreg.)

18:15 Elgoibar - Gwendoline (2. erreg.)

Igandea, 26

12:00 Elgoibar - Lemona (E. L. jub.)

17:00 Haundi - Real UniOn

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunhata, 25

15:30 Unceta Elg. - Arrate (Kad. mut.)

16:45 Pneumax Elg. - Arrate (Kad. mut.)

18:10 Elgoibar - Leizaran (Seniorrak)

### Atletismoa, Mintxetan

10:30 Eskolarteko Kirolak

## Gerrak sortzen dituen ondorioak erakusketa baten bilduak

Hilaren 30era arte egongo da ikusgai Kultur Etxean

# 2L

### Une histoire de Seduction

Zu rrumb iloa, kaosa, tristura, amodioa, gorrotoa,... irtenbiderik gabeko espiral batean murgiltzen gaitu **DIABOLOGUM** taldeak. Aldizkariak 'Manta Ray frantsesak' bezala salduarazi nahi izan zizkiguten, baina egia esanda, xixondarrak baino denbora gehiago eramateaz gain, **DIABOLOGUM** taldearen lanetan ezuste gehiago topa daitezke. Okela zati gordin bat balitz bezala (kaliate onekoa, noski) askotan murtzikatu behar den musika jorratzen dute. Hasieran desenfokaturik ikusten bada, entzuten den heinean, enfokatu joango gara, soinu arkitektura bikaina lortu arte.

Disko osoa samples josita egon arren, collage bat baino gehiago direla oso argi uzten dute, eta edertasunez betetako paisaia kaotikoz liluratzen gaituzte. Berezitasun bezala, ahotsak ez du melodia bat bera ere egiten, frantsesez errezitatuz gidatzen gaitu azkenaldi honetako talde interesgarrienetariko honek. Le parfum...

Iban Urizar eta Julien II

Datorren ostegunera arte ikusgai egongo da Zuhaitz Astialdi Taldeak eta Talde Antimilitaristak elkarlanean antolatutako gerra eta bakeari buruzko erakusketa. 'Mugarik Gabe' Gobernu Kanpoko Erakundeko kide baten azalpenekin eman zitzaion hasiera hilaren 16an erakusketari. Kultur Etxeko erakusgela erabat itxuraldatuta ikusteko aukera izango du erakusketa bisitatzerakoan. Gerra batek sortzen dituzten triskantzak eta herritarrengan sortzen dituen ondorio larzak ikus daitezke. 1945etik 1994ra bitartean munduan egon diren konfliktuak agertzen dituen munduko mapa batek, esaterako, gerra gehienak hegoaldean izan direla agertzen du. Arma esportatzaile nagusiak, berriz, iparraldean kokatzen direla argi ikusten da. Mina antipersonalak ere badaude, bonbek suntsitutako etxe bat, genetik sortzen dituzten mutilatu eta elbarrituak, etab. Datu esanguratsu askoren berri eman zuen "Mugarik Gabe"ko kideak. Adibidez, gerra batean



*Mina antipersonalak sortzen dituzten sarraskiak, armak erosteko behar den diruarekin eros daitezkeen elikagaiak eta antzeko gaiak aipatu zituen 'Mugarik Gabe' erakundeko kide batek,*

zaurituak hildakoak baino hiru aldiz gehiago izaten dira. Beste datu kezagarri bat: Espainia munduko 12. arna esportatzailea da.

Bestalde, larunbatean, hilak 25, gaueko 22:30ean, kontzertua izango da Gaztetxean Zuhaitz Astialdi Taldeak eta Talde Antimilitaristak antolatuta. *Anari* eta *Betagarri* dira kontzertua emango duenak. Honez gain, haurrentzako ekitaldiak ere antolatu dituzte. Datorren ostegunean, hilak 30, jolasak egingo dituzte herriko haurrekin Plaza Handian arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

## Marta Carrasco dantzariaren Aiguardent ikuskizuna gaur, hilak 24

Haritz Dantzari Taldearen 25. urterrenoko ekitaldien bueltan, gaur, ostirala, hilak 24, dantza eta antzerki ikuskizuna izango da Marta Carrascoren eskutik. *Aiguardent* izeneko saioa eskainiko du dantzari kataluniar honek; 1995ean sortua, dagoeneko Estatu osoan eskaini ditu emanaldiak. Pep Bou eta Ariel Garcfa Vald6sen zuzendaritzapean, emakume baten historiaren barna

egiten den bidaiaren kontakizuna da, antzerkiaz eta dantzaz baliatuz. "Intimotasunaren radiografia" dela esan daiteke. Obra guztian zehar antzezle bakarra dago, Marta Carraseo bera, eta antzerkia eta dantza nahasten ditu. Emakume hau nahiko ezezaguna den arren gure artean, kritika oso onak jaso ditu. Ikuskizuna gaueko 22:30ean izango da Herriko Antzokian.

D BOLOGria. 



/14a'p'n'OP-0

<sup>14</sup>14404k0

# lempeteNtedt t4tex oak4toi talate taien

*19 urte dituen elgoibartar hau erizaintza ikasketak egiten ari da. Duela urte batztk, Miguel De La Cuadra Salcedok zuzendutako 'Ruta Qetzal' ezagunean parte hartu zuen. Beharbada ordutik geratu zaio neska gazte honi abenturarako zaletasuna. Kontua da oraingo honetan Saharan izan dela, bertako herritarrek bizi duten egoera zuzenean bizitzen. Bere esperientzia kontatu nahi izan digu.*

**- Saharan pasatu dituzu bost egun. Nolatan?**

- Bi urtetan gure familian Saharako bi haur egon izan dia udan. Donostiako Udalak antolatzen daban programa batez enteratu ginan eta guk ere haur hoiende alde zeozer itxia erabaki gendun. Udako hilabetiak gurekin pasatu ditzuzte eta gero, urtian zihar laguntza bialdu izan diegu. Kontua da nik Saharara jun nahi nabala euren bizitzaren berri izateko.

**- Eta nola izan duzu aukera?**

- Aurten urten zan posibilidadia Logrofioko Udalan bitxartez. 100 plaza zeuden eta hoietako bat lortu naban. Helburua, han izan geranok gero hemengo jendia kontzientzia-tzia izan da. Horretarako, hango kuituria ezagutu dogu baina bertatik, ze askotan hemendik gauzak beste era batera ikusten ditzugu.

**- Esaterako?**

- Pentsatzen dogu behar handixa dakela, baina han izan eta gero konaturatu naiz behar horiek, materialak behintzat, guk sortzen ditzugula. Gu bezela ez badaude eta guk daukaguna ez badake uste dogu ez daudela ondo, baina hori ez da horrela. Eurak zoriontsu dira daukatenaekin. Nahi daben bakarria autodeterminaziva lortu eta euren lurraldera bueltatzia

da.

**- Urri aldera erreferenduma izango da, ez?**

- Bai, hala da. Urte asko egon dia gerran Marokoren kontra eta badirudi aukeria eukiko dabela oin autodeterminaziva eskuratu eta berriz ere euren lurraldera bueltatzeko, Marokon dagoena. Oin Argelian daude errefuxiatuak, Frente Polisario deitzen dana da.

**Nola ikusten da gaia? Posible izango al dute erreferenduma lortu eta gero aurrera egitea?**

- Nahiko zaila da eta euren artian ere iritzi desberdinak daude. Momentu honetan lanik in gabe bizi dia. Gizonak ejerzitorea juten dia hainbat hilabetetan eta Gobernuak ordaindu itxen die zeozer. Emakumiek etxia aurrera ateratzeko itxen dabe lan, seme-alabak hazten ditzuzte... Kontua da, autodeterminaziva lortuko balute hutsetik hasi biharko lirakeela eta dan-dana bebraiek antolatu biharko luke-te, nahiz eta laguntza izan. Eta hori ez da batera erreza izango.

**- Non dago, beraz, erronka?**

- Euren etorkizuna gaur egun ume eta gaztiak

direnengan daukate jarrita. Horregatik oso garrantzitsua da ume horiei ikasketak ematia, informatika irakastia eta abar. Azken batian, oingo gaztien esku dao etorkizuna eta prestatuak egon bihar dute aurrera begira. Hemendik jende asko juten da bertara hurrei klasiak ematera. Konpetenteak izaten irakatsi behar zaie.

**- Ez al da gai nahiko ezezaguna guretzat?**

- Bai, Euskal Herrixan oso jende gutxik daka hango berri eta kontzientzia-zio bajua dao. Horregatik inportantia da hango egoeria ezagutzen dabenak horren berri eman eta jendia animatzia kolaboratu dezan, eta ez dot esaten urtian behin kontzientzia garbitzeko 1.000 pezeta ematia. Hori baino askoz gehixo inleike, eta gure esku dao.



## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia.	
Larrialdiak .....	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a .....	742950
Alkoholiko Anonunoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitalea .....	756264
Odol Emailak .....	743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua .....	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .....	741626
Kiroldegia .....	744415
Kontsumo Bulegoa .....	743088
Libu rutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
M inbreta .....	744315
Parrokia .....	740842
Postetxea .....	741547
Gaztetxea .....	741357

### ADINEKOEN ETKEAK

San Lazaro Egoitza ..	740296
Zaharren Biltokia ...	740526

### IKASTETKEAK

Haur Eskola .....	74 21 41
HHI (EPA) .....	74 08 80
Herri Eskola .....	74 08 79
I.M.H. ....	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre .....	74 02 67
Ezenarro (Meka)	74 44 80
I kastola .....	74 44 41
Pilar Ikastetxea	74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN .....	74 41 12
El Diario Vasco ..	74 40 73
El Correo Espariol ...	74 10 82
Egin .....	10 84 21
Zazpiki irratia .....	74 34 74

## 24 ostirala

**18:30 ODOL ATERALDIA**  
P. M. Urruzuno 8an

**19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA**  
Gaztetxean

**20:00 SENDOTZA OSPAKIZUNA**  
Parrokian

**22:00 ANTZERKIA**  
Antzeztaldea:  
"Femina Extremura"  
Antzezlana:  
"Ridiculy Show"  
Gaztetxean  
Antolatzailea:  
Gazte Asanblada

**22:30 DANTZA IKUSKIZUNA**  
Dantzaria: Marta Carrasco  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Haritz  
Dantzari Taldea

**23:30 ANTZERKIA**  
Antzeztaldea:  
Fregoli Antzerkia  
Antzezlana: "S(Slo Adultos Sociedad An6nima"  
Lanbroa tabernan

## 25 arunbata

**15:30 ELGOIBARKO VII. DUATLOIA**  
Plaza Handian  
Antolatzailea: Euskadiko  
Triatloi Federazioa  
Laguntzailea:  
Urgazi Triatloi Taldea

**19:30-22:15 ZINEA**  
"The boxer"

**22:30 KONTZERTUA**  
"Anari" eta "Betagarri"  
Gaztetxean  
Antolatzaileak:  
Talde Antimilitarista eta  
Zuhaitz A. T.

## 26 igandea

**12:15 V. HAUR KROSA**  
Plaza Handian  
Antolatzailea:  
San Bartolome ikastola

**19:30-22:15 ZINEA**  
"The boxer"

## 27 astelehena

**22:15 ZINEA**  
"The boxer"

## 29 asteazkena

**10:15 IKUSENTZUNEZKO SAIOA**  
**DEBABA** euskaltegiko ikasleentzat  
"Iparralde: Xiberuatik itsasora"  
Kultur Etxean

## 30 osteguna

**17:00 HAUR eta GAZTEENTZAKO JOLASAK**  
Plaza Handian  
Antolatzaileak:  
Talde Antimilitarista eta  
Zuhaitz A. T.

**22:15 ZINE KLUBA**  
"Txotx" laburmetraia eta "Gabbah" filmea  
Antolatzailea:  
Ongarri Zine Kluba  
Laguntzailea:  
Elgoibarko Izarra

## 1 ostirala

**22:30 ANTZERKIA**  
Antzeztaldea: Antxieta  
Antzezlana: "Hamar minutu gauerdirako"  
Herriko Antzokian

# 11 NE A



**Zuzendaria:** Jim Sheridan  
**Antzezleak:** Daniel Day-Lewis, Emily Watson, Brian Cox.

## The Boxer

Danny gartzelan dago 19 urte zituenetik IRAko kide izateagatik. Gaztetan Maggie-rekin maitasun istorio bat izan zuen baina hainbeste urte pasatu ondoren, Maggie ezkondu egiten da Dannyren lagun onenarekin. Hau ere gartzelan sartzen dute baina hala ere, ezkontzak porrot egiten du Dannyrekin maiteminduta dagoelako. Danny gartzelatik irteten da baina bere bizitza jadanik ez da lehengo i zango.



# Avititi,e)doia

# 4 1

**Antxleta. 4«.11.04,1el  
Taldea**

**4144,43~:**

*othudis 9a44.e)dinaiza*

*grisota: mcfria4a4*

*04.dua: .2,2:30*

*dilewiliszt 4sig.dzia«.*

Azpeitiko Antxieta Antzerki Taldeak maiatzaren leian bere azken obra eskainiko du, "Hamar minu-



tu gauerdirako" izenekoa. Elgoibartar bat, Jokin Martinez, antzeztalde honetako kidea da eta obra honetan parte hartzen du. Zer garen, nondik gatozen, zer nahi dugun,... eta antzeko gaiderek planteiatzen dituzte Antxietakoek antzezlan honetan.



## • Nagusien tanborradarako bilera deia

Trinitate jaietan izango den nagusien tanborradan parte hartu nahi dutenentzako bilera antolatu da biharko, Iarunbata, hilak 25. Eguerdiko 12:00etan Kultur Etxean izango da. Bilera honen helburua, aurrerantzean jende kopurua zehazteko kuadriletako ordezkariekin harremanetan jarzea da. Beraz, ahal duten guztiak agertzeko eskatu nahi dute antolatzaileek.

## • Antzerkia eta kontzertua Gaztetxean

Gaur, hilak 24, ostirala, antzerki saioa izango da Gaztetxean gaueko 22:00etan hasita. *Femina Extremura* antzeztaldeak *Ridiculy Show* ikuskizuna taularatuko du. Bestalde, **bihar, hilak 25**, Zuhaitz Astialdi Taldea eta Elgoibarko Talde Antimilitaristaren eskutik, *Anari abeslariak eta Betagarri* taldeak kontzertua emango dute Gaztetxean. Gaueko 22:30etik aurrera.

## • Buztin ikastaroa

Lurki Zeramika Elkarteak buztin ikastaroa emango du maiatzaren 4tik 8ra bitartean. Tomuaren teknikan landuko da buztina. Izena emateko Aita Agirre plazako egoitzara jo.

## • 'Hiru Handiak' euskal giroan

Mendizaleek ibilaldi zoragarria egiteko aukera izango dute maiatzaren 1, 2 eta 3an. Euskal Herriko euskara elkarteek antolatuta, Hiru Handiak (Aizkorri, Gorbea eta Anboto) egiteko aukera izango da. Izena emateko Elgoibarko Izarrako 74 16 26ra deitu hilaren 27a baino lehen. Prezioa: 6.000 pta.

## • Sendotza ospakizuna Parrokian

Gaur, hilak 24, Madalako Kultu eta Ebanjelizazio Zentroko 46 gaztek Sendotza hartuko dute San Bartolome parrokian. Ospakizuna arratsaldeko 20:00etan izango da. Antolatzaileek eliztar guztiei ekitaldira joateko gonbida luzatu nahi diete.

## • Antzerkia Lanbroa tabernan

Gaur, hilak 24, gaueko 23:30etik aurrera, antzezlan bat ikusteko aukera izango da Lanbroa tabernan. Donostiako *Fregoli* antzeztaldearen eskutik, *SOlo Adultos Sociedad AnOnima* izeneko lana taularatuko da. Teresa eta Paul Lopez de Munain anai-arrebak dira antzezleak eta sexuari buruz den-dena jakin nahi duen guztiari dago zuzendua. Gidoiaren egilea eta zuzendaria Patxi Bilbao Zalbidea da.

## T X A N D A K

### FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
<b>25</b>	<b>Etxeberría*</b> (Santa Ana))	<b>Escala</b>
<b>26</b>	<b>Etxeberría*</b> (Santa Ana)	<b>Escala</b>
<b>27</b>	<b>Bidasolo Bidasolo</b>	
<b>28</b>	<b>Etxeberría Etxeberría</b> (Santa Ana kalean)	
<b>29</b>	<b>Anduaga Anduaga</b>	
<b>30</b>	<b>Yudego Yudego</b>	
	<b>1 Anduaga Anduaga</b> *teguerdiko 2ak arte)	
<b>ESCALA: Rekalde, 1</b>		
<b>Soraluze. Tel: 75 16 38</b>		
<b>ANDUAGA: Mendarozabal, 1</b>		
<b>Garagarza. Tel: 75 61 42</b>		
<b>ZABALETA: Kalebarren, 9</b>		
<b>Soraluze. Tel: 75 13 84</b>		
<b>OKINDEGIA</b>		
<b>26 igandea Idarraga</b>		



gatazka kontatzen du. Bilboko Jaialdian saritu zuten laburmetraia hau.

## Gabbeh (Iran)

Iraneko hegoaldeko eskualde baten eta alfonbra mota baten izena da Gabbeh. Pelikulako neska protagonista ere Gabbeh deitzen da. Neska honek maitale bat dauka eta joaten den leku guztietara segitzen dio bere zaldiarekin. Sari ugari jasotzen ditu eta Oscar sarietarako izendatu zuten atzerriko filmeen atalean.

## G) Txotx (Euskal Herria)

Euskal Herrian egindako zinta honek sagardotegi batera doan lagun talde baten artean sortzen den familia arteko

c5

4  
rwi  
tiZ

111

## Lana

### ◆ESKAINZA\*

- Neska euskalduna hehar da 2 ume zaintzeko. **tr 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14** (hulego orduetan)
- Jendea behar da rebarbatzaile lana egiteko. Interesatuak deitu **15 18 16** telefonora.
- Neska hehar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, **-rr 74 12 33** (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da, **xr 74 37 22** (goizeko 8:30etik 1 0:30etara)
- Pensona hat hehar da hanun eta sukaldian lan egiteko. Ahal izanez gero esperientziarekin. **a 74 37 60**

### ◆ESKAERA.

- Neska eskaintzen da gauez pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat Zaharren Erresidentzia hatean lan egin baitut. **\*a 74 31 88** (Ana. Gaueko 20:00etatik 21 : 00etara)
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. **tr 74 20 72 (Edurne)**
- 24 urteko neska prest dago kanguro hezala aritzeko edo etxeko lanak egiteko asteburuetan. **tr 74 04 59**
- Ingeles eta frantseseko itzulpen literarioak egiten dira enpresa eta bestelakoentzat. **tr 74 04 59**

## Bestelakoak

- Ekainaren 18an **Rolling Stones taldearen kontzerturajoateko autobusa** antolatuko da. Izena emateko Kaia kafetegira jo.
- Karpeta hat galdu nuen Herd Eskolatik musikeskolara hitartean. Iñigo Arrese Lariz ipintzen du barruan. Norbaitek aurkitu hadu, dei dezala, mesedez. **a 74 32 96**
- Ostegun Santu iluntzean, elizatik Santa Klarara bilartean perla zuri-dun eta brillante txikiak dituen belarririkoa galdu nuen. **tr 74 15 64**
- Perikito grisa aurkitu dut. Hanka hatean anila bat dauka. Galdu duenak dei dezala **74 04 97** telefonora.
- Katu siamesa galdu dut Ermua-ranhide kalean. Nahiko iluna. Norbaitek aurkitu hadu, mesedez dei dezala. **tr 74 35 48** (Puri)
- Hiru txakur "ratonero" emango nituzke. Hilabete dute, **is 75 60 42**

## Partikularrak

- Latin eta grekera klaseak hartuko nituzke. **tr 74 09 85** (Nuria)
- Enpresariales ikasketetako Ekonomia I eta II ikasgaien klase partikularrak hartuko nituzke. **n° 74 15 24.**
- Humanistikako klaseak emateko norbait hehar da. **ts 74 14 03**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. **a 74 07 86**
- Humanistikako klaseak hartuko nituzke selektibitateko. **z° 74 09 85**
- Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. **ir 74 00 98**
- Kimika lizentziatua naiz eta 11-sika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. **tr 74 44 45** (Arrate)

## Garajeak

- Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. **tr 74 12 04**
- Garajett alokatzen da, Pista heltzaren azpian. 71\* **74 14 89**
- Marradun garajea alokatzen da pista heltzean 5.0(X) pezetan. **Tr 74 00 70** (gauez)
- Garaje itxia saltzen da Arregitorren. **Kr 75 51 77** (Tere)
- Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren.c **74 26 94**
- Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. **ir 74 33 39**

## Etxebizitiak

- Etxea alokatzen da Santa Polan. Hondartzatik 50 metrora. Ekain, uztail eta irailean. **ar 74 08 05**
- Pisua alokatzen da. 3. pisua igogailuarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. San Inazio 3 zenbakian. **tr 74 07 31**
- Soraluzeko Loratde kalean etxea salgai. **12 74 34 05**
- Pisua alokatzen da Madrilan. Ikasleentzako aproposa. **tr 74 31 56**
- Pisu txikia edo buhardila bat alokatuko nuke. **tr 74 43 10** (Cristobal)
- Etxea konpartitzeko pertsona behar da Elgoibarren. **a 989 35 73 70** (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- Pisua salgai Urasandi 5-3an. Ganbara ere dauka.s. **74 13 57**

## Salerosketak

gall11111

### • SALDU\*

- Game Boy bat saltzen dut. 13 jolas dita. 13.000 pta. **74 24 83**
- + Kotxe kapota, kotxea estaltzekoa eta 2 manta salgai. Guztiak berriherriak. **ir 74 44 16**
- Aukera. Karabana salgai. Oso ondo zaindua. Prezioa 350.00() pta. **tr 74 27 29**
- Motozerra saltzen da. Husquarna 45. Nahiko berria. 25.000 pta. **tr 74 11 29**
- Aleivziozko 4 errohera saltzen ditut. Wolkswagen Polo autorako. 20.0410 pta.n. **72 74 43 10** (Kitxo)
- Ezkongaiatzeko bi soineko saltzen ditut. Kolore zuria dute eta 10 zenhakia. Prezioa hitz egitekotan. **tr 15 03 95**

### • EROSI•

- Umea hizkarrean eramateko motxila erosiko nuke. **a 74 42 97**
- Lokal merkea erosi nahi genuke kalean. **tr 74 36 94** (Ainhoa Alonso)
- Manikiak behar ditut eskaparaterako. **58 09 18** (Bego)

## Agurrak

- Zorionak **Aneri** hilaren 1 9an Iif-teak hete zituelako. Familiaren eta lagunien partez.
- Kaixo **Leire**. Larunbatean txikolatada haundi hat egingo dugu. Superzorionak printsesa. Ainhoa eta gurasoen partez.
- Zorionak **Amaia Arrietari** apirilaren 26an urteak heteko dituelako. Itsaso eta Ainhoaren partez.
- Zorionak **Leire Vazquezi** hilaren 25ean 7 urte beteko dituelako. Bere lagun Lara eta ahizpa Ainhoaren partez. "Las rubias con las rubias" taldearen partez.
- Zorionak **Leire Perezi** hilaren 14an 13 urte bete zituelako. Zer inoduz partiduan? Askok begiratu al zenion 10 zenhakiari? Zorionak "Que te he dieho"-ren partez.
- Zorionak **Enearnari** eta **Jorgeri** hilaren 7an eta 23an urteak bete zituztelako. Familia osoaren partez, bereziki Luziaren partez.
- Zorionak **Elena Laskuraini** hilaren 17an 11 urte bete zituelako. Leire, Ane eta Oihaneren partez.
- Zorionak **amama Pepitari** hilaren 19an urteak bete zituelako. Etxekoen partez, bereziki Jon eta Mikelen partez.


- Aupa **Txinarris!** Aurten 3-4 sardina hakalau, martitzenian ospatuko juaul! Argi datorren urtarian Internet hidedez egingo dou eta... Zorixonak ek pu goztizan izenian eta segi urte askuan zeran modukua izaten!



- Zorionak **Crislian Arriolari** hilaren 25ean 3 urte beteko dituelako. Egun zorionsua igaro dezala, guraso, amama eta osabazibeben partez.



- Zorionak hilaren 19an 13 urte bete zituen **Maialen Morari**. Zorionak baita ere **Haritz Arrietari** hilaren 26an 13 urte heteko dituelako. Ikastolako **DBH** Iekoen partez.



- Zorionak **Ion** hilaren 21ean 6 urte beteko zenituelako. Guraso, amama eta arreba Nerearen partez.



- Zorionak **Jenifer Riverori** hilaren 22an 10 urte hete zituelako. Gurasoen partez musu handi hat.



- Zorionak **Jorge Dieguezi** hilaren 23an 13 urte bete zituelako. **Pilar** ikastetxeko **DBH** Ieko mutilen partez eta "ezkutuko admiratzaile"aren partez. Zorionak baita ere **gelako nesken partez**. Zer pentsatzeko zenuen, ez ginela gogoratuko?



- Zorionak **Mikael Lopezosari** gaur 7 urte bete dituelako. Opari asko jasotzea espero dugun, batez ere futboleko jokatze botak. Bthotz-bihotzez gurasoen eta anaia Ion Vicenteren partez.



# 11 T

## Mapfre Etxea

Zure beharretara moldatzen gara

Kobertura eta segurtasun handiagoa

Abantailaz beteriko aseguru batekin

MAPFREren garantiaz osoz

Lasai egon zaitezten

Beti zuen zerbitzura

Telefono  
berria

902 136 524

San Frantzisko, 40  
Tel: 943 74 05 82

**MAPFRE**  
**ETXEA**



A. Altuna eta T. Esnal  
**TXOTX**

M. Makhmalbaf  
**GABBEH**

**ZINEA**

**Apirilak 30, osteguma**  
**Gaueko 22:15ean**  
**Herriko Antzokian**

Antolatzaileak:  
7 er r NE KLUBA  
211(41)j tts O IZARRA K. E.

# GARAY



**HARATEGIA**  
**URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9 • Tel: 943 74 13 92

Etengabe berritzen  
eta modernizatzen  
kalitatearen eta  
bezeroaren mesedetan

## AURREZ PRESTATUTAKO PLATERAK

Etxean prestatutako produktuak eskaintzen dizkizugu, primerako kalitatezko elikagaiekin egindakoak. Kontserbante eta eransgarri berezirik gabe. Jateko prest daude, batzuek berotu besterik ez dute behar; beste batzuk, berriz, hotzean jan daitezke fianbre modura.

- Okela gisatua
- Buztan gisatua
- Albondigak
- Untxia saltsan
- Oilaskoa saltsan
- Mingaina saltsan
- Bildotsa saltsan
- Tripakiak tomatearekin
- Okelaz beteriko piperrak
- Redoñdoa saltsan
- Oilasko betea saltsan
- Oilasko betea (fianbrea)
- Indioilar betea saltsan

Produktu hauek aurrez eskatzea gomendatzen dizugu, kontserbante eta eransgarri naturalak daramatzatenez, kontsumorik onena epe motzean izaten baita.



Albondigak



Piper beteak



Oilasko betea  
saltsan



Oilasko betea  
(fianbrea)